

2022. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2021eko azaroaren 26an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2021/12/15 239. zk.

ORDENANTZA FISKALA, UDAL HILERRIAREN TASA ARAUTZEN DUENA

1. artikulua. OINARRIA ETA IZAERA

Tokiko Ogasunen 9/2005 Foru Arauaren 21. artikuluko 1 eta 4 ataletan ezarritakoarekin bat etorrita, udal honek udal hilerriaren tasa eskatuko du.

2. artikulua. EGITATE EZARGARRIA

Tasa honetako egitate ezargarria udal hilerriko zerbitzuak ematea da eta baita nitxo, panteoi eta hilobietarako terrenoaren adjudikazioak ere, besteak beste:

- * Nitxo, panteoi edo hilobietan hilobiratzea (hilobi eskubideak).
- * Gorpuak txikitzea edo lekuz aldatzea.
- * Heriotza-polizak eskainitako bestelako edozein zerbitzu, bai egokia denean, bai alde batek eskatuta baimentzen denean.

3. artikulua. SALBUESPEN SUBJEKTIBOAK

Salbuetsita egongo dira, udalaren gizarte zerbitzuek ehortzitakoek kaudimenik ez daukatela egiaztatzen duen txostena eginda, kaudimenik bako pertsona horiek ehorzteko zerbitzuak.

4. artikulua: SUBJEKTU PASIBOA

Tasa honen subjektu pasiboak dira zerbitzua emateko eskatzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak, eta bere kasuan, lizentzia edo emakidaren jabeak diren titularrak.

5. artikulua: OINARRI EZARGARRIA

Zerbitzu honen tasaren oinarri ezargarria honako hauek osatzen dute: 1) herri jabariko aprobetxamendu edo zerbitzu mota bereziak, 2) aprobetxamenduaren denborak, 3) lizentziaren edo emakidaren arabera baimendutako okupazioaren azalera, edo jadanik okupaturiko azalerak. Merkatuan izango lukeen erabilgarritasunaren balioa erreferentzia modura hartuko da.

6. artikulua: TASA KUOTA

Tasa kuota honako tarifa hauek aplikatuta finkatuko da:

	2022(€)
1.epigrafea: Gorpua hilobiratzeko lizentzia :	
1.1- Panteoian	212,30
1.2- Hilobian	148,28
1.3- Nitxoan	115,93
1.4- Kendutako gorputz zatia hilobiratzea	18,19
1.5- Abortuetako umekiak	18,66
1.6- Erretako gorpua	18,66
2.epigrafea: Gorpuzkinak txikitu eta lekuz aldatzea:	
2.1- Gorpuzkinak txikitzea eta berriro hilobi berean sartzea	33,92
2.2- Euren barik beste hilobi batean jarrita gorpuzkinak txikitzea	51,42
2.3- Gorpuzkinentzako nitxoetan edo hazurtegian jarririk gorpuzkinak txikitzea	51,42
2.4- Ondino gai organikoak daukiezalako, gorpuzkinak txikitu aurretik eginiko lanak	113,60
2.5- Udal hilerritik kanpora eroateko, gorpuzkinak txikitzea	25,62
2.6- Aurretiaz txikitutako gorpuzkinak beste hilobi batera edo udalerritik kanpora eroateko hilobia aldtzea	20,17
2.7- Beste hilerri batzuetatik ekarritako gorpuzkinak hilobiratzea	20,17
2.8- Euren hilobian barriro jarririk gorpuzkinak txikitzea, erretzea edota haustu	68,42
2.9- Euren barik beste hilobi batean jarrita gorpuzkinak txikitzea, erretzea edota haustu	85,38
2.10- Gorpuzkinentzako nitxoetan edo hazurtegian jarririk gorpuzkinak txikitzea, erretzea edota haustu	85,38
2.11- Udal hilerritik kanpora eroateko, gorpuzkinak txikitzea, erretzea edota haustu	60,34
2.12- Aurretiaz txikitutako gorpuzkinak erretzea edota haustu beste hilobi batera, hilerritik kanpora edo udalerritik kanpora eroateko	55,06
2.13- Beste hilerri batzuetatik ekarritako gorpuzkinak erre edota haustu eta hilobiratzea	55,06
3.epigrafea: Eskualdatzeak:	
3.1- Panteoiarena:	
3.1.1- Dohaintza	577,53
3.1.2- Oinordeko bakar baten aldeko herentzia	577,53
3.1.3-Herentziaz, besteek uko eginda, oinordeko baten alde geratzen denean	1.155,05
3.1.4-Gainerako eskualdatzeak	2.310,13
3.2- Hilobiarena:	
3.2.1 Dohaintza	289,46
3.2.2- Oinordeko bakar baten aldeko herentzia	289,46
3.2.3-Herentziaz, besteek uko eginda, oinordeko baten alde geratzen denean	578,94
3.2.4-Gainerako eskualdatzeak	1.157,89
3.3- Nitxoena	109,29
3.4- Hezurtegiarena	10,97
4.epigrafea: Kontzesioak	
4.1- Nitxoak	214,41

4.2- Hazurtegi nitxo	19,29
4.3- Hilobia	5.416,45
4.4- Panteoia	21.665,78

Kontuan eduki behar da litekeena dela kopuru hauek enkante bidez hobetu beharra egotea, lurra baino lur- eskaria handiagoa bada.

7. artikulua. SORTZAPENA

Tasa ordaindu beharra sortuko da zerbitzuak ematen hasten direnean, eta horretarako zerbitzuak hasten direla ulertuko da zerbitzuak emateko eskabidea egiten denean.

8. artikulua. ORDAINKETAK

1.- Subjektu pasiboek zerbitzuak emateko eskaera egiten dutenean autolikidazio bidez tarifak ordaintzeko aukera izango dute.

2. Zerbitzu bakoitzean banakako aparteko kitapena egingo da tarifa egoki bakoitza aplikatuta. Kitatu beharreko kontzeptu bat baino gehiago balego, kontzeptuok ordainagiri baten bidaliko dira.

3. Autolikidazioetan epigrafe okerra aplikatu dela egiaztatzen bada, Errenta Sailak epigrafe egokiarekin behin-betiko kitapena egingo du autolikidazio bidez ordaindutakoa haren kontura erregistratuta. Egiaztapenak egiteko eta likidazioak igortzeko, udal hilerriko arduradunak egunean eskatutako zerbitzuen zerrenda aurkeztuko du Errenta Sailean, honako datu hauek adierazita:

- Zerbitzua egiten duen ehorztetxea.
- Hilobiaren emakidaduna edo zerbitzua eskatzen duen senidea.
- Zerbitzu motak, tarifa banaketaren arabera.
- Hilobiratzeko hilobi motak.
- Hilobiratutako pertsonaren izena.
- Zerbitzua eman den eguna eta ordua.

9. artikulua- ZERGA HUTSEGITEAK ETA ZEHAPENAK

Zerga arau-hausteen eta horien kalifikazio desberdinen inguruan, baita kasuan kasuko zigorren inguruan ere, Tributuen gaineko Foru Araua eta Tributuen Kudeaketa, Diru-bilketa eta Ikuskapenaren Ordenantza Orokorreko arauak aplikatuko dira.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honetan beren beregi araututa ez dagoenaren inguruan, udal honek onetsitako *Kudeaketa, Diru-bilketa eta Ikuskapenaren Ordenantza orokorrean* eta aplikatzekoa den legerian ezarritakoa bete beharko da.